



**2022KO URRIAREN 10EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko urriaren hamarrean, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu. Iñaki Eskisabel Zurututza kontu hartzailea ere bertan izan da.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2022ko irailaren 26an egindako bilkurako akta, galdera eta erreguak ataleko esaldi batean aldaketa bat txertatuta onartu delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2022ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 48 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA HAMALAU MILA BERREHUN ETA HAMAIKA euro ETA BERROGEITA BI zentimo (34.211,42 €)takoa onartzea erabaki da.

III.- GIPUZKOAKO EROSKETA ZENTRALAREN BIDEZKO KONTRATAZIOA

- C gasolioaren hornidura.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakinarazi du, C gasolioaren hornikuntza kontratatzeke kontratazio espedienteari hasiera ematera doala, esparru akordioaren prozedura bidez.

Honen aurrean, kontuan izan behar da udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeke hitzarmena onartu zuela, eta udal honek hornikuntza hau behar duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, erabaki du: Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak C gasolioaren hornidura kontratatzeke hasi duen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenean ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.

Alkateak, atxikitzeke eskaeran ohar bat egitea eskatu du. Joxemiel Barandiaran kiroldegia izanik C gasolioarekin hornitzen den udal eraikuntza bakarra, bertako obrak amaitzen direnean ez dela beharko C gasolioaren hornidurarik, eraikina momentu horre-

tatik aurrera gasarekin hornituko delako. Beraz, momentu hori iristean kontratuaren atxikipenari amaiera emango litzaioke.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 247 zbk.dun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea 2022ko irailaren 18an heriotzagaitik.
- 22-11-08 zbk.dun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea 2022ko urriaren 1ean beraien borondatez.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.-

- 22-01-006 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako laguntza bajaran ematea urritik, diru sarreretan aldaketak egon direlako.
- 22-01-004 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako laguntza eta alokairurako laguntza bajaran ematea urritik, diru sarreretan aldaketak egon direlako.

Gazte Laguntzaileentzat Bekak.-

- IORITZ BARANDIARAN EIZMENDI-ri, 2022ko uztailaren 30etik 2022ko abuztuaren 19ra (biak barne) Galapago Uharteetan, Ekuador, "komunitateko praktika onak indartzeko" boluntario bidaia egiteko onartutako 2.000,00€ko diru laguntzaren bigarren zatia ematea. Ordainketa bi zatitan egingo da: %50a (1.000,00€) bidaia egin aurretik eta %50a (1.000,00€) gastuen faktura edo agiri originalak aurkeztutakoan. Behin justifikazioa aurkeztuta eta baldintzak betetzen dituela ikusita, falta den 1.000€ko ordainketa egitea.

V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

- Kantaka Abesbatza
Udala eta Kantaka abesbatzaren artean izenpetutako hitzarmenean finkatutako jardueren burutzea justifikatu ondoren, dirulaguntzaren azken %40aren ordainketa, MILA ETA SEIEHUN euro (1.600,00 €), onartzea.
- Lazkao Txiki Musika Eskola
Lazkao Txiki musika eskolari 2022ko udal aurrekontuan aurreikusitako dirulaguntzaren bigarren zatia, HOGEITA ZAZPI MILA ETA BOSTEHUN euroko (27.500 €) dirulaguntza ematea onartzea.





LAZKAOKO UDALA

Udala eta Oin Arin dantza taldearen artean izenpetutako hitzarmenean finkatutako jardueren burutzea justifikatu ondoren, dirulaguntzaren azken %40aren ordainketa, LAU MILA ETA ZORTZIEHUN euro (4.800,00 €), onartzea.

- Lazkaoko Musika Banda
Udala eta Lazkaoko musika bandaren artean izenpetutako hitzarmenean finkatutako jardueren burutzea justifikatu ondoren, dirulaguntzaren azken %40aren ordainketa, MILA ETA BERREHUN euro (1.200,00 €), onartzea.
- Gerriko Kultur Elkarteak
Gerriko Kultur Elkarteak eRRe emanaldia antolatu du, aldarri bat bertsoz, aurtengo Euskaraldiaren programaren barruan.

Hau dela eta MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST euro ETA BERROGEITA HAMAR zentimoko (1.875,50€) dirulaguntzaren ordainketa egitea onartzea.

- San Benito Ikastetxeko Ikasleak
San Benito ikastetxeko ikasleei, 1.go batxillergoko ikasleak, San Migeletako jaietan antolaketa lanetan laguntza emateagatik ZORTZIEHUN euroko (800€) dirulaguntza ematea.
- Orobione Jubilatutako Elkarteak
2022ko San Migel jaietan irailaren 24an ospatu zen sagardo dastaketa dela eta, bertan jubilatutako kopak saltzen aritu ziren. ZAZPIEHUN ETA HOGEITA HAMABOST euro (735 €) bildu ziren eta kopuru horren erdia, HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA ZORTZI euro (368 €), udalak Orobione jubilatutako elkarteari dirulaguntza moduan ematea salmenta lanak egiteagatik.

VI.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK

Kirol eta gazterriko zinegotziak egindako proposamenaren aurrean Tokiko Gobernu batzarrak, aho batez, kirol taldeei 2022rako zuzendutako honako dirulaguntzak onartzea erabaki du:

Kirol taldea	Federatuen laguntza	Ekintzak	Ekintzen laguntza	Diru laguntza Guztira
Lazkao Kirol Elkarteak	13.500 €			13.500,00 €
Lazkao Antzar Pelota Kirol Elkarteak	2.000 €	Goierriko eskolaumeen pelota txapelketa	957,04€	2.957,04 €
Amalur Mendi Elkarteak	900 €			900 €
Goierri Gorri kirol kluba	4.500 €			4.500 €
Ordiziako Igeriketa Taldea	1.200 €			1.200 €
Orloij Txirrindularitza Bultzatutako elkarteak	700 €			700 €
Txindoki Atletismo Taldea	700 €			700 €
Antzar Korrikalariak kirol kluba	1.250 €	- Eskolaumeen triatloia - Eskola umeen mendi duatloia - San Silbestre lasterketa	1.030,48 € 300 € 3.800€	6.380,48 €
Lazkao Areto Futbol taldea	1.200 €			1.200 €



San Benito ikastola–Saskibaloit taldea	1.000€			1.000 €
Guztira	26.950 €		6.087,52 €	33.037,52 €

VII.- LANDALURREKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa lurreko balzordelik baserritar ekoizleei dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako hau erabaki du:

- Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2022ko maiatzean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei bosgarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

Baserritarra	Zenbatekoa
Asier Mujika Zubiarrain	75€
Aitor Iztueta Barandiaran	295€
Iker Sukia Mesas	190€
GUZTIRA	560 €

Ordainketa aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik egingo da.

VIII.- ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAN ALOKAIRUENGATIKO HOBARIA.-

Ogasun Batzordeak egindako proposamena aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzordeak honakoa erabaki du:

M^a Reyes Senar Senar herritarrak Lazkaoko Hirigoien 12, 2B helbidean alokatuta duen etxebizitzari dagokion 2021. urteko hirilur izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari, urtarrilaren 1etik abuztuaren 31 arte dagokion %50eko hobaria aplikatzeko egin duen eskaera onartzea.

Hau horrela izanik, M^a Reyes Senar Senarri 61,70 €ko ordainketa egitea onartu da.

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik edota erregurik izan.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bost eta erdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA

